

ALKATE - LEHENDAKARIAREN ZENBAKIKO EBAZPENEA
RESOLUCIÓN DEL ALCALDE - PRESIDENTE Nº
(Testua/Texto RA000721)

Gaia: Hautaprobak egiteko COVIDaren aurkako protokolo-plan bat ezartzea.

A la vista del establecimiento de un plan de un protocolo anti - COVID para la realización de pruebas selectivas.

Egitateak:

Resultando los siguientes hechos:

- Alkate - Lehendakariaren 2020ko ekainaren 1eko 500 zenbakiko Ebazpenaren bidez, Kontingentzia Plana onetsi zen, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondoren Irungo Udaleko ohiko jarduerara itzultzeko.
- Kontingentzia Plan horren 10 f) atalak ezarri zuen ezen, dagoeneko deituta zeuden hautatze-prozesuei berriz ekiteko, segurtasun-bermeak eskaini behar zitzaizkiela prozesu horretako langile arduradunei nahiz parte hartzen zuten izangaiei. Era berean, atal horrek berariaz ezarri zuen aretoak gaituko zirela hautaprobak aurrez aurre egiteko. Betiere areto horiek ahalbidetu egin behar dute errespetatu egingo direla bai urruntze sozialaren betebeharrak bai kutsatzeak ez hedatzeko beste edozein segurtasun- eta osasungarritasun-neurri.
- Lehendakariaren martxoaren 5eko 13/2021 Dekretuaren eranskinak, 2021ean testu bakarrean lehen aldiz bat egin zuenak, prebentzio-neurri espezifikoak eguneratuta, alarma-egoeraren
- Que, mediante Resolución del Alcalde-Presidente número 500, de 1 de junio de 2020, se aprobó el Plan de Contingencia para el retorno a la actividad ordinaria en el Ayuntamiento de Irun tras la crisis sanitaria provocada por el COVID-19.
- Que el apartado 10 f) del citado Plan de Contingencia estableció que la reanudación de los procesos selectivos ya convocados se produjese con garantías de seguridad para el personal encargado de su ejecución, así como para las personas aspirantes que concudiesen a los mismos. Igualmente, dicho apartado estableció expresamente que para la realización de pruebas selectivas con carácter presencial, se habilitarían las salas que permitiesen el respeto a las obligaciones de distanciamiento social, así como cualesquiera otras medidas de seguridad y salubridad para evitar la propagación de los contagios.
- Que, el Anexo del Decreto 13/2021, de 5 de marzo, del Lehendakari, de primera refundición en 2021 en un único texto y actualización de medidas específicas de prevención, en el ámbito de la declaración

adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2ak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko, zortzigarren atalean, hautatze-prozesuak garatzeko arau espezifikoak ezartzen ditu, eta erakunde antolatzaileak COVIDaren aurkako protokolo bat izan behar dutela ere ezartzen du. Protokolo horretan, COVID-19aren transmisio-arriskua minimizatzeko beharrezko neurriak beteko direla bermatuko da, bai barrutiaren barruan, bai inguruko eta sarrerako eremuetan, eta beti 1,5 metroko urruntze pertsonala bermatuz.

del estado de alarma, como consecuencia de la evolución de la situación epidemiológica y para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2, establece en su apartado octavo normas específicas para el desarrollo de los procesos selectivos, así como la necesidad de que la entidad organizadora cuente con un protocolo anti-covid en el que se garantice el cumplimiento de las medidas necesarias para minimizar el riesgo de transmisión de la COVID-19, tanto en el interior del recinto como en las zonas aledañas y de acceso, garantizando, en todo caso, un distanciamiento personal de, al menos, 1,5 metros.

Argudioak:

- Kontingentzia Plan horretan aurreikusitakoari jarraikiz, langileak hautatzeko probak egiteko, COVIDaren aurkako protokolo espezifiko bat eman behar da, COVID-19aren transmisio-arriskua minimizatzen lagunduko duena.
- Irungo Udaleko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzuak baliozkotu du protokolo horren edukia, eta udal-langileen ordezkarietentzun ondoren eman da.
- Alkate - Lehendakaria da erabaki hau hartzeko organo eskuduna, aplikatu beharreko araudiaren arabera.

Considerando los siguientes argumentos:

- Que, con sujeción a lo previsto en el citado Plan de Contingencia, se ha de dictar un protocolo anti-covid específico para el desarrollo de las diferentes pruebas de selección de personal, que contribuya a minimizar el riesgo de transmisión de la COVID-19.
- Que el contenido del citado protocolo ha sido validado por el Servicio de Prevención de Riesgos del Ayuntamiento de Irun, y se dicta oída la representación del personal municipal.
- Que el Alcalde-Presidente es el órgano competente para la adopción del presente acuerdo, de conformidad con la normativa de aplicación.

EBATZI DUT:

LEHENA. Onestea COVID-19aren aurkako protokoloa, erantsita doana, Irungo Udalak antolatzen dituen hautatze-prozesuetan deitzen diren probak egiteko aplikatzekoa.

BIGARRENA. erantsita doan Protokolo hori Irungo Udalean deitutako hautatze-prozesuak gauzatzeko izendatutako epaimahai kalifikatzaileen eta ebaluazio-batzordeen lehendakaritzaren esku jar dadin ezartzea, eta haiei eskatzea dagozkien deialdietan aplika dezatela eta interesdunei jakinaraz diezaietela.

HIRUGARRENA. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Honen aurka, aukeran, berraztertze-errekurtsoa jarri ahalko da, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, hilabetean ebazpena jakinarazi eta biharamunetik; edo, bestela, zuzenean aurkaratu, Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabetean ebazpena jakinarazi eta biharamunetik. Gainera, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtso aurkeztu ahalko da.

Irun, ebazpen hau sinatzen den datan.

HE RESUELTO

PRIMERO. Aprobar el adjunto Protocolo anti-COVID-19, aplicable en el desarrollo de las diferentes pruebas que se convoquen en los procesos selectivos organizados por el Ayuntamiento de Irun.

SEGUNDO. Establecer que el adjunto Protocolo se ponga a disposición de la presidencia de los diferentes Tribunales Calificadores y Comisiones Evaluadoras nombradas para la ejecución de los diferentes procesos selectivos convocados en el Ayuntamiento de Irun, instando a las mismas a que lo apliquen en sus convocatorias respectivas y lo difundan entre las personas interesadas.

TERCERO. La presente Resolución pone fin a la vía administrativa. Contra la misma podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Donostia - San Sebastián, en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.

Irun, a fecha de la forma de la presente resolución.

ERANSKINA

COVID-19AREN AURKAKO PROTOKOLOA, IRUNGO UDALAK ANTOLATZEN DITUEN HAUTATZE-PROZESUETAN DEITZEN DIREN PROBETAN APLIKATZEKO.

1. Xedea:

Protokolo honen xedea da COVID-19aren transmisio-arriskua minimizatzeko behar diren neurriak ezartzea Irungo Udalak antolatutako hautatze-prozesuetan deitzen diren probetan.

2. Arau-esparrua:

Protokolo hau Lehendakariaren martxoaren 5eko 13/2021 Dekretuaren eranskinaren zortzigarren atalean aurreikusitakoarekin bat etorri eman da. Dekretu hori testu bakar batean bat egin zen lehen aldiz 2021ean, prebentzio-neurri espezifikoak eguneratuta, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2ak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.

Nolanahi ere, protokolo honetan xedatutakoa COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondoren Irungo Udaleko ohiko jarduerara itzultzeko Kontingentzia Planaren 10 f) atalean ezarritako aurreikuspena garatzen duela ulertu behar da, zeina Alkatzaren 2020ko ekainaren 1eko 500 zenbakiko Ebazpenaren

ANEXO

PROTOCOLO ANTI - COVID-19 APLICABLE EN EL DESARROLLO DE LAS DIFERENTES PRUEBAS QUE SE CONVOQUEN EN LOS PROCESOS SELECTIVOS ORGANIZADOS POR EL AYUNTAMIENTO DE IRUN

1. Objeto:

Constituye el objeto del presente Protocolo el establecimiento de las medidas necesarias para minimizar el riesgo de transmisión de la COVID-19, en el desarrollo de las diferentes pruebas que se convoquen en los procesos selectivos organizados por el Ayuntamiento de Irun.

2. Marco normativo:

El presente Protocolo se dicta de conformidad con lo previsto en el apartado octavo del Anexo del Decreto 13/2021, de 5 de marzo, del Lehendakari, de primera refundición en 2021 en un único texto y actualización de medidas específicas de prevención, en el ámbito de la declaración del estado de alarma, como consecuencia de la evolución de la situación epidemiológica y para contener la propagación de infecciones causadas por el SARS-CoV-2.

En todo caso, lo dispuesto en el presente Protocolo habrá de entenderse en desarrollo de la previsión establecida en el apartado 10 f) del Plan de Contingencia para el retorno a la actividad ordinaria en el Ayuntamiento de Irun tras la crisis sanitaria provocada por el COVID-19, aprobado mediante resolución de Alcaldía

bidez onetsi zen.

número 500, de 1 de junio de 2020.

3. Hautaprobaren programazioa:

Irungo Udalak antolatutako hautatze-prozesuen esparruan deitzen diren hautaprobak egiteko lokalak edo gelak gaituko dira. Lokal horiek ahalbidetu egingo dute urruntze sozialaren betebeharrak errespetatzea eta kutsatzeak ez zabaltzeko bestelako segurtasun- eta osasungarritasun-neurriak betetzea.

Horretarako, bermatu egingo da proba bakoitzera deitutako pertsonen kopurua ez dela izango hautapropa egin nahi den lokalaren edukieraren % 50 baino handiagoa, eta, era berean, saiatu egin beharko da erabilitako gelak ahalik eta gehien aireztatzea ahalbidetuko duten kokalekuak aukeratzeko. Era berean, probara deitutako pertsonen modu ordenatuan sartu beharko dute lokalera, eta irten ere modu ordenatuan irtengo dira.

Ezinezkoa gertatuko balitz deialdiko pertsona guztiak aurreko neurriak bermatuko dituen barruti bakar batean kokatzea, beste lokal edo gela batzuk erabiliko dira, edo baloratu egingo da izangaiak aldi berean ez deitzea.

4. Hartu beharreko prebentzio-neurrien publizitatea:

Irungo Udalak deitutako hautatze-prozesuak gauzatzeko izendatutako Epaimahai Kalifikatzaileek eta Ebaluazio Batzordeek jakitera emango dute, dagokion deialdiarekin

3. Programación de pruebas de selección:

Las diferentes pruebas selectivas que se convoquen en el marco de los procesos selectivos organizados por el Ayuntamiento de Irun se realizarán en locales o dependencias que permitan el respeto a las obligaciones de distanciamiento social, así como cualesquiera otras medidas de seguridad y salubridad para evitar la propagación de los contagios.

A tales efectos, se garantizará que el número de personas convocadas a cada prueba no rebase el 50% del aforo del local donde se pretenda celebrar la prueba selectiva en cuestión, procurándose igualmente la elección de ubicaciones que permitan la máxima ventilación de las estancias utilizadas, así como el tránsito ordenado de las personas convocadas en el acceso y en el abandono del local utilizado.

Cuando no fuera posible ubicar a la totalidad de las personas convocadas en un único recinto que garantice las medidas anteriores, se utilizarán varios locales o dependencias, o se valorará la convocatoria de las personas aspirantes de forma no simultánea.

4. Publicidad de las medidas preventivas a adoptar:

Los Tribunales Calificadores y Comisiones Evaluadoras nombradas para la ejecución de los diferentes procesos selectivos convocados por el Ayuntamiento de Irun darán publicidad, junto con la convocatoria oportuna o con la debida

batera edo behar besteko aurrerapenarekin, hautaprobetara deitutako pertsonen zer prebentzio neurri hartu behar dituzten COVID-19aren transmisio-arriskuak minimizatzen.

Deitutako pertsonen hartu beharreko prebentzio-neurriak jakitera ematerakoan, berariaz ezarriko da COVID-19arekin bateragarriak diren osasun-sintomak dituztenak ezin izango direla joan dagokion hautaprobetara eta Epaimahai Kalifikatzaileari jakinarazi beharko diotela dagokion proba egin aurretik. Orduan, epaimahai horrek dagokion frogagiri medikoa eskatu ahal izango du gerora, hautapropa hori ez egitearen ondorioak baloratzeko. Nolanahi ere, Udalak aukera izango du eskatzeko proba deitutako pertsonen, proba egin aurretik, zinpeko adierazpen bat egin dezaten COVID-19arekin bateragarria den sintomarik ez dutela adieraziz.

Era berean, gogoraraziko da derrigorrezkoa dela maskara homologatua erabiltzea dagokion hautapropa egiten den bitartean. Maskara, nolanahi ere, proba deitutako pertsonak berak ekarri beharko du, eta behar bezala erabili beharko da; bestela, ez zaio sartzen utziko.

5. Hautaprobak egiterakoan hartu beharreko neurriak:

- **Epaimahaikideak:** Udalak beharrezko babes-materialez hornituko ditu

antelación, a las medidas preventivas a adoptar por parte de las personas convocadas a las diferentes pruebas selectivas, en aras a minimizar los riesgos de transmisión de la COVID-19 en el desarrollo de las mismas.

En la publicidad de las medidas preventivas a adoptar por parte de las personas convocadas, se establecerá expresamente que, quienes presenten síntomas de salud compatibles con la COVID-19, deban abstenerse de acudir a la prueba selectiva correspondiente, debiendo ponerlo en conocimiento del Tribunal Calificador con anterioridad a la celebración de la prueba correspondiente, sin perjuicio de que éste pueda exigir la justificación médica oportuna posteriormente a la hora de valorar las consecuencias de la no realización de la citada prueba selectiva. En todo caso, el Ayuntamiento se reservará la posibilidad de que las personas convocadas realicen, con carácter previo a la realización de la prueba, una declaración jurada manifestando no presentar sintomatología compatible con la COVID-19.

Igualmente, se recordará la obligatoriedad del uso de mascarilla homologada durante el desarrollo de la prueba selectiva correspondiente que, en todo caso, deberá aportarse por la persona convocada a la misma y utilizarse forma correcta, no permitiéndose el acceso en caso contrario.

5. Medidas a adoptar durante la celebración de las pruebas selectivas:

- **Miembros del Tribunal:** El Ayuntamiento proveerá a los miembros

epaimahaikideak.

- **Pertsona arteko distantzia:** Irungo Udalak deitutako hautaprobak egiten diren bitartean, bermatu egin beharko da pertsonen artean gutxienez 1,5 metroko distantzia mantentzen dela une oro. Segurtasun-distantzia hori barrutiaren barruan nahiz inguruko eta sarbideko eremuetan mantendu beharko da, eta deitutako pertsonen sarrera-irteerak mailakatuta egingo dira, pertsonen arteko distantzia hori bermatzeko beharrezkoa balitz. Horrela, azterketa-gelara banaka eta deitzen den ordena zorrotz betez sartu beharko da, eta aurrekoa sartu eta eseri denean emango zaio bide pertsona bakoitzari. Baloratu egingo da proba egingo den barrutirainoko ibilbidea seinaleztatzeko aukera, baita itxarote-prozesuan urruntze pertsonala bermatzeko neurriak hartzea ere.
- **Eskuen higiena:** Azterketa-gelara sartu aurretik, izangaiek eskuak garbitu beharko dituzte gel hidroalkoholikoarekin, horretarako ezartzen den tokian.
- **Sarreraren kontrola:** Dagokion hautapropa egingo den barrutira sartzerakoan, probara deitutako pertsonen NANA edo beren nortasuna argi eta garbi egiaztatzen duen agiri baliokidea erakutsiko dute, eta

del Tribunal de los materiales de protección necesarios.

- **Distancia interpersonal:** Durante el desarrollo de las pruebas selectivas convocadas por el Ayuntamiento de Irún se deberá garantizar que, en todo momento, se mantiene un distanciamiento personal de, al menos, 1,5 metros. Dicha distancia de seguridad se habrá de mantener tanto en el interior del recinto como en las zonas aledañas y de acceso, promoviéndose la entrada y salida escalonada de las personas convocadas cuando fuese necesario para garantizar dicha distancia interpersonal, de forma que el acceso a la sala de examen se realice individualmente y por riguroso orden de llamamiento, dándose paso a cada persona una vez haya accedido y tomado asiento la anterior. Se valorará la posibilidad de señalar el recorrido hasta el recinto en donde se celebrará la prueba, y la adopción de medidas que garanticen el distanciamiento personal durante el proceso de espera.
- **Higiene de manos:** antes de acceder a la sala de examen, los/as aspirantes deberán limpiarse las manos con gel hidroalcohólico, en el lugar que se establezca a tales efectos.
- **Control de los accesos:** a la entrada al recinto donde se realizará la correspondiente prueba selectiva, las personas convocadas mostrarán el D.N.I., o documento equivalente que acredite de forma inequívoca su

maskara une batez kentzeko ere eska dakieke, beren nortasuna egiaztatzeko soilik, eta beti segurtasun-neurriak betez. Nortasuna egiaztatutakoan, maskara behar bezala jarriko da, eta langile laguntzaileek emandako jarraibideak beteko dituzte.

- **Hautapropa egingo den barrutian kokatzea:** Hautapropara deitutako pertsonak berariaz gordeko zaien lekuan eseri beharko dute. Nolanahi ere, pertsonen arteko gutxieneko segurtasun-distantzia bermatuz eseriko dira.
 - **Toki bat baino gehiago erabiltzea:** Deialdiko pertsonak barruti batean baino gehiagotan egin behar badituzte proba praktiko baten atalak, bermatu egingo da pertsonen gela arteko joan-etorria modu ordenatuan egiten dela. Nolanahi ere, saihestu egingo da, ahal den neurrian, probara deitutako pertsonak topo egitea, baita haien arteko elkarrekintza ere. Horretarako, baloratu egingo da dagozkion proba praktikoak pertsona-talde estankoen sarrera mailakatuaren bidez antolatzea.
 - **Beharrezko materiala:** Ahal den neurrian, materiala partekatzea saihestuko da, eta probara deitutako pertsonak jakinaraziko zaie beraiek ekarri behar dutela proba egiteko
- identidad, pudiendo ser requeridas para despojarse brevemente de la mascarilla con el único objeto de verificar su identidad y guardando siempre las medidas de seguridad. Comprobada la misma, se colocarán la mascarilla adecuadamente y seguirán las indicaciones que les dé el personal colaborador.
 - **Ubicación en el recinto en el que se desarrollará la prueba selectiva:** las personas convocadas deberán tomar asiento en el lugar que expresamente se les reserve y que, en todo caso, garantizará la distancia mínima de seguridad interpersonal.
 - **Utilización de diferentes espacios:** cuando las personas convocadas deban realizar en recintos diferentes los diferentes apartados de los que una prueba de carácter práctico, se garantizará que el tránsito de personas entre las diferentes dependencias se realiza ordenadamente y, en todo caso, evitando en la medida de lo posible la coincidencia e interacción de las diferentes personas convocadas, a cuyos efectos se valorará la posibilidad de organizar la realización de las pruebas prácticas correspondientes mediante la entrada escalonada de diferentes grupos estancos de personas.
 - **Material necesario:** en la medida de lo posible, se evitará compartir material y se informará a las personas convocadas de la necesidad de que porten su propio material de escritura necesario

behar duten idazketa-materiala. Erakunde antolatzaileak dagokion proba egiteko deitutako pertsonen materiala ematen badie, behar bezala higienizatuta dagoela bermatuko da.

- **Barrutitik ordenan irtetea:** Hautaprobara deitutako pertsonen proba amaitu ahala, horren berri emango diote arduradunari, eta hark kenduko du dagokion materiala. Langile arduradun horrek berriaz adierazi ondoren irten ahal izango dira probara deitutako pertsonak aretotik, ordenan eta gelditu gabe, barrutitik kanpora irten arte, betiere pertsonen artean gutxienezko distantziari eutsiz.
- **Bertaratze-ziurtagiriak:** Deialdia egin zaien pertsonen, hala eskatzen badute, posta elektronikoz jasoko dute bertaratze-ziurtagiria, dagokion hautapoba amaitutakoan pilaketarik ez sortzeko.

6. Hautaprobak egiteko erabiltzen diren instalazio eta barrutien garbiketa eta aireztapena:

Hautaprobak egiten diren barrutiak erabili aurretik, eta baita probak amaitutakoan ere, bermatu egingo da indarrean dauden garbiketa-protokoloen arabera garbitu eta desinfektatuko

para la realización de la prueba. En el caso de que la entidad organizadora facilite material a las personas convocadas para la realización de la prueba correspondiente, se garantizará que éste se halla debidamente higienizado.

- **Abandono ordenado del recinto:** a medida que las personas convocadas a la prueba selectiva finalicen la realización de la misma, lo pondrán en conocimiento del personal responsable, quien retirará el material correspondiente. Una vez dicho personal responsable se lo indique expresamente, las personas convocadas podrán abandonar la sala ordenadamente y sin detenerse hasta salir al exterior del recinto, manteniendo siempre la distancia interpersonal mínima.
- **Certificados de asistencia:** las personas convocadas que así lo soliciten recibirán por correo electrónico el correspondiente certificado de asistencia, para evitar la aglomeración de las mismas al término de la prueba selectiva correspondiente.

6. Limpieza y ventilación de las instalaciones y recintos utilizados para la realización de las pruebas selectivas:

Con anterioridad al uso de los recintos en los que se desarrollen las pruebas selectivas, así como al término de las mismas, se garantizará su desinfección e higiene conforme a los protocolos de limpieza vigentes. Igualmente, y

direla. Era berean, eta ahal den neurrian, proba egiten den bitartean erabilitako espazioak aireztatu egiten direla bermatuko da.

Egin beharreko hautaprobak etenaldiren bat egitea aurreikusten bada, baloratu egingo da bertan erabilitako espazioak ahal den neurrian desinfektatzeko eta aireztatze aukera.

en la medida de lo posible, se garantizará la ventilación de los espacios utilizados durante el desarrollo de la prueba en cuestión.

Cuando en el curso de la prueba selectiva a realizar se prevea algún receso, se valorará la oportunidad de desinfectar los espacios utilizados durante el mismo, así como de ventilar los espacios utilizados en la medida de lo posible.